

# LANTEGIAK EKITALDEAN (UDALSAREA21): 2016/06/30

**Kokapena:** Eusko Jaurlaritzaren Gipuzkoako ordezkaritza (Andia 13, Donostia)

**Iraupena:** 2 ordu eta erdi

## Parte-hartzaileak

Izena	Udalerria
Larrucea , Aitor	Durangoko Udaletxea
Zorrakin Pérez, Igor	Durangoko Udaletxea
Fernandez Moran, Maria	Maruri-Jatabeko Udaletxea
Alonso , Andrés	Vitoria-Gasteizko Udaletxea
Uncella Basabe, Ruth	Aguraingo Kuadrilla
Goyarrola, Agate	Ihobe

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Rafael Sanchez Guerras	Arabako Lurralde Antolamenduko burua

## Laguntza teknikoak

Izena	Enpresa
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal

## Aurkezpena

Berrikuspen-prozesuaren, Oinarrizko Dokumentuko edukien eta saioko edukien aurkezpen orokorra egin ondoren, zuzenean dinamika garatzera pasako gara.

Aurrerago, lan-dinamikaren azalpena egingo da.

Ekitaldearen aurreko saioan bost gaietako bi landu zirenez gero eta bertaratutako pertsona batzuek saio hartan parte hartu zutenez gero, saio honetan gainerako hiru gaiak eta horien barruko azpigaiak landuko dira.

Talde-lana (2 ordu)

Bertaratutako pertsonen kopurua dela kausa, talde bakarrean lan egitea eta gai guztiak lantzea erabakitzen da. Pertsona bakoitzak gai bakoitza bakarka landuko du panelen arabera, geroago, bertaratutakoek ideiak elkarri azalduko dizkiete eta, azkenik, eztabaida irekiko da.

### Lantegiaren emaitzak.

Jarraian adierazten dira lantegiaren emaitzak:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea:
  - 1.1. Paisaia
  - 1.2. Naturagune babestuak
  - 1.3. Korridore ekologikoak
  - 1.4. Azpiegitura berde integratua
  - 1.5. Klima-aldaketa
  - 1.6. Ingurune fisikoaren antolamendua
2. Zeharkako Alderdiak:
  - 2.1. Genero-ikuspegia, osasuna, euskara
  - 2.2. Lurralde-erlazioa
  - 2.3. Parte-hartzea eta Gobernantza
3. Landa-ingurunea
  - 3.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

- 3.1.1. Landa-produktu eta -kontsumitzaileen kooperatiben sorrera sustatzea. Landa-inguruneko autokudeaketaren eta autokontsumoaren alde lan egin behar da.
- 3.1.2. Landa-inguruneko azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak optimizatu behar dira, hiri-eremuetan eta landa-eremuetan existitzen diren bizi-baldintzak eta zerbitzuak orekatuta.
- 3.1.3. Landa-ingurunean enplegua indartu behar da. Landa-inguruneak aukera ekonomikoak sortzen ditu turismoarekin erlazionatutako enplegu-nitxo berrien bitartez; hortaz, garrantzitsua da landa-ingurunearekin bateragarriak diren jarduera turistikoak bultzatzea.
- 3.1.4. Garraio publikoarekin hobekien konektatuta dauden landa-eremuei eragin dakiekeen enplegua garatzeko neurriak proposatu behar dira, eremu horiek enplegu-ardatz bihurtzeko potentzial handiagoa dute-eta.
- 3.1.5. Landa-inguruneko konektibitatea hobetu daiteke eta hobetu behar da mugikortasun ekologikoago bat lortzeko, hain zuzen horrenbesteko balio naturala duen ingurune batean.
- 3.1.6. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak instalatzeko baldintzak malgutu behar dira, bizilagunen arteko gatazkarik eragin gabe.
- 3.1.7. Landa-inguruneak despopulazioaren arriskuari aurre egiten dio.
- 3.1.8. Teknologia berrien inbasioaren ostean, landa-inguruneak izan duen nortasun-galera geldiarazi behar da.
- 3.1.9. Landa-ingurunearen erronka handienetako bat lurralde-desoreka da, ekonomia, osasun eta hezkuntza mailan.

## 3.2. Landa-ingurunearen antolamendu fisikoa

- 3.2.1. Komenigarria da aintzat hartzea EAEko landa-ingurunearen aniztasuna eta landa-ingurune bakoitza bakarka tratatzeko beharra.
- 3.2.2. Mugikortasun jasangarriko politikak hiri-mugikortasuneko politikak besterik ez dira, eta landa-inguruneko mugikortasuna alde batera utzi da. Eta hain zuzen landa-ingurunean dago bide luzeena aurretik eta garraio bide alternatiboak sustatzeko behar handiena.

## 4. Hiri-ingurunea

### 4.1. Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea

- 4.1.1. Munduko biztanleriak gora egiten du azkar eta hiri-inguruneak ezin du horren azkar hazi; beraz, hiri-birgaitzea eta -berroneratzea oso garrantzitsuak dira biztanleriaren hazkundera ez dezan lurzoruaren okupazioa areagotu.
- 4.1.2. Jadanik erabiltzen ez diren industrialdeen birgaitzea irizpide orokor gisa ezartzea.
- 4.1.3. Hiri-diseinua optimizatzea energia-eraginkortasun handiagoa lortzeko, ura bezalako baliabideak berrerabiltzea eta banakako energia-kontsumoa hornitzea ahalbidetzen duten zoladura xurgatzaileen, teilatu fotovoltaiakoen eta abarren bitartez.

### 4.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

4.2.1. Espazio libre gutxi behar duten eta ezagutzan oinarritzen diren jardueren edo enpresen kontzentrazioa.

4.2.2. Garrantzitsua da jadanik erabiltzen ez diren guneak berpiztea eta ezagutzan, ez hainbeste ekoizpenean, oinarritzen diren jarduerak erakartzen saiatzea. Parke teknologiko eta zientifikoak lurzoru berria industrializatu gabe birgaitu daitezkeen tokietara erakarri behar dira.

#### 4.3. Metropoli-eremuak eta eraldaketa-ardatzak

4.3.1. Motordun garraio pribatuaren erabilera zigortzea proposatzen da.

4.3.2. Auto elektrikoaren jasangarritasuna zalantzan jartzen da, energia elektrikoaren sorkuntzak ingurumen-kostu handia duelako.

#### 4.4. Bigarren etxebizitza eta turismoa

4.4.1. Jendetza-turismoa arautzen duen lege bat behar dugu.

4.4.2. Hotelen, landetxeen, ostatuen, aterpeen eta abarren eraikuntza eta eraketa arautzen dituen Turismo Lege bat behar dugu, eta kontu horiek jasotzen dituen egungo Lurralde-plan Sektoriala berrikusi behar da.

4.4.3. Uste da jendetza-turismoak landa-nortasunaren galera eragiten duela.

#### 4.5. Hiri-hazkundera

4.5.1. Lurzoru birjina ez okupatzeko HAPOen irizpideekin bat egitea eta garapena jadanik erabiltzen ez den barrualdean ardaztea, berroneratze-, birgaitze- eta birdentsifikatze-planen eta abarren bidez.

4.5.2. Hiri-azpiegitura berdea sustatzea, hala uraren infiltrazioa eta atxikipena nola estalki berdeak bezalako gaiak landuta.

4.5.3. Hiriko bero-uhartea murriztea. Hirietan euri-ura kudeatzea, hiri-drainadura jasangarrirako sistemen bidez iragazkortasuna handituz.

4.5.4. Hiri-ingurunean ibaiak eta itsasoa eraldatzen ari dira etengabe, kanalizazioen, lurperatzeen, itsas pasealekuen eta abarren bidez. Prozedura horrek izadia ez errespetatzeaz gain, askotan uholdeak, irristatzeak eta beste arazo batzuk eragiten ditu.

4.5.5. Udalerrien hazkunde-perimetroa, bai lurzoru urbanizagarrian bai finkatu gabeko hiri-lurzoruan, mugatzen duen estrategia bat garatzea proposatzen da.

4.5.6. Ez da estrategiarik existitzen hondakinen kudeaketa modu jasangarrian egiteko.

#### 4.6. Herri mugakideak

4.6.1. Funtsezkoa da herri mugakideek denon arteko planeamenduak egitea, bereziki, landa-eremuetan.

4.6.2. Garrantzitsua da herri bakoitzaren Plan Orokorren prestakuntza-prozesuan udalherri mugakideak tartean sartzeari, plana ikuspegi bateratu eta integratzaile batetik egiteko moduan.

4.6.3. Udalerri handiek garraio-kontuetan hartzen dituzten erabakiek eragin handia dute hinterland horietako udalerri txikien mugikortasunean.

4.6.4. Konurbazioaren fenomenoak lurralde-estrategiak konbinatzeko baliabide gisa erabiltzeko aukera eztabaidatzen da. Plentzia eta Gorkiz edo Santurtzi eta Portugalete bezalako adibideak aipatzen dira.

## 5. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak

### 5.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

5.1.1. Mugikortasun-bide alternatiboak sustatzea kutsadura akustikoa eta airearen kutsadura eragozteko.

5.1.2. Kalitate oneko oinezko bideak behar dira, ahal izanez gero, errepidetik bananduta.

5.1.3. Bizikleta-bideen egokitzapena hobetzea, bereziki segurtasunari dagokionez. Bidegorrien sareak ixtea proposatzen da 30 kilometro orduko mugaketekin eremu estuetan.

5.1.4. Garrantzitsua da udalerrien eta lurralde historikoen arteko bizikleta bidezko konexioa hobeto koordinatzea.

5.1.5. Garrantzitsua da baita ere azpiegitura seguruak sortzea eta hiri-ingurunean integratzea, azpiegitura horiek motordun ibilgailu pribatuetara eskainitakoaren aurrean lehenetsiz.

5.1.6. Bizkaiko Bizikletazko Zuzendaritza Plana duela urte asko onartu zen, hala ere, ez da ia planeko neurri bat ere abian jarri.

5.1.7. Hiri-inguruneetan bizikleta-mugikortasuna sustatzea eta "txirrindulariak espaloitik aterata" oinezkoen mugikortasuna babestea bateragarri egitea.

5.1.8. Bizkaian Bizikletaren Plan Sektorial Partzial bat prestatzea proposatzen da, errepideen gaineko plana bezalakoexea.

5.1.9. Zikloturistaren irudia bultzatzea, garrantzitsua delako, baina ez lehenestea. Bizikleta-azpiegitura batez ere eguneroko garraiora bideratu behar da zikloturismoa barne hartuta, eta ez alderantziz. Mugikortasunerako, eta ez hainbeste aisiarako, egitura bat sustatzea.

### 5.2. Mugikortasun kolektibo multimodala

5.2.1. Garraio publikorik eza ingurune landatarrenetan.

5.2.2. Ikuspegi orokor bat behar da, bai eta administrazio publiko guztiek (Sustapen Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, eta abar) mugikortasun kolektibo multimodalaren planeamenduan parte hartzea ere.

5.2.3. Garraibide guztietarako balio duen billete bakarra sortu behar da lurralde historikoetan.

5.2.4. Hainbat garraibideren ordutegiak bateragarri egin behar dira, bereziki geltokietan edo nodo multimodaletan kointziditu dezaten.

### 5.3. Bide-mugikortasuna

5.3.1. Ibilgailuen trafikoa mugatzea, superetxadien ideia bultzatzea (udal-eskumenen barruan) eta pasoko trafikoa “superetxadien” ertzean dauden lehentasunezko bideen bidez antolatzea.

5.3.2. Distantzia ertaineko eta aldiriko trenbide-sarea indartu behar da.

5.3.3. Zalantzan jartzen da bide-sarea ez zabaltzeko erabakia hartu ondoren libre gelditzen diren aurrekontu-partidak mugikortasun-sare alternatiboak hobetzera bideratuko direla.

#### 5.4. Eredu logistikoa

#### 5.5. Portu-, trenbide- eta aireportu-mugikortasuna

5.5.1. Zalantzan jartzen da baita ere abiadura handiko trenaren beharra, eskualdeak lotzeko duen funtzionaltasun urria dela-eta.

#### 5.6. Ura

5.6.1. Lurralde historikoetan uraren gaineko erabakiak bateratu behar diren arren, kudeaketa partzuergo handien inguruan zentralizatzeak udalerriek eta mankomunitateek ura toki mailan kudeatzeko duten gaitasuna mugatzen du. Horren aurrean proposatzen da ur-partzuergo txikiagoak sortzea, eskualde mailan, behintzat bizigune nagusietatik urrun dauden eskualdeetan.

5.6.2. Araban, uraren kudeaketa sakabanatuta dago oso; hortaz, ez dago eskumenak lagatzeko prest dagoen erakunderik.

#### 5.7. Energia

5.7.1. EAE mailan energia kutsatzaileen kontsumoa murrizteko estrategia bat ezartzen duen plana prestatu behar da; horretarako, garrantzitsua da udalerrietan energia berriztagarriak bultzatzea, udalerrien artean estrategia bateratuz.

5.7.2. Eskala txikian eta norbanako mailan energia berriztagarriak sortzeko proiektuen gaineko zergak murriztea. Aitzitik, kontrakoa proposatzen da: horrelako instalazioen finantzaketa eta diru-laguntza bultzatzea.

5.7.3. Udalerriek oro har modu isolatuan lan egiten dute energia berriztagarrien sustapenean, baina ados jarri behar dute, estrategiak eta ahaleginak bateratuz.

5.7.4. Energia alternatiboak erabiltzea, instalazio berrietan ez ezik instalazio zaharrak birgaitzeko ere.

5.7.5. Efizientzia goreneko egoera energetikoak lortu behar dira funtzionaltasuna galdu gabe; zenbaitetan hortxe dago gakoa, eta ez hainbeste energia berriztagarri berriekiko obsesioan.